

BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

610

EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 15ekoa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez deklaritzen baita Bilbao-Donostia trenbidearen Ermuko zatia eraikitzeko proiektuak hasiera batean afektatutako finken desafektazioa –espedientean 20., 21. eta 22. zenbakiekin daude identifikatuta–.

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2012ko azaroaren 5eko Ebazpenaren bidez, «Bilbao-Donostia trenbidearen Ermuko zatia eraikitzeko proiektua» onetsi zen.

Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2014ko otsailaren 6ko Ebazpenaren bidez, aipatutako proiektua gauzatzeko beharrezkoak ziren ondasun eta eskubideak nahitaez desjabetzeko prozedura hasia erabaki zen.

Halaber, afektatutako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea erabaki zen, eta 2014ko apirilaren 7an behin betiko onartu zen, aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren.

Ebazpen berean, okupazioaren aurreko aktak egiteko deialdia egin zen, eta egintza hori Ermuko eta Zaldibarreko udaletxeetan izan zen, 2014ko maiatzaren 27an.

Gaur egun, egiaztatu da ez dela beharrezkoa hasiera batean afektatutako finken afektazioa –espedientean 20., 21. eta 22. zenbakiekin identifikatuta daude–.

Horren ondorioz, hasiera batean afektatutako finkek desafektatu egiten dira; honako hauek dira finka horiek:

Finka-zenbakia	Jabea	Katastroko erreferentzia	
20	Félix Vildosola San Martín	5	208
21	M. ^a Teresa Murga Murgategi	5	172
22	José Ignacio Arancibia Areitio eta Iciar Salegui Amuchastegui	5	173

Aurreko guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hasiera batean desjabetze-espedientean afektatutako finken desafektazioa deklaratzeko –20., 21. eta 22. zenbakiekin identifikatuta daude–.

Bigarrena.– Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

Ebazpen honek amaitutzat jotzen du administrazio-bidea. Honen aurka, berraztertzeko aukerako errekurtsioa aurkez dakioko organo honi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 114., 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat eginez, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, zuzenean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia

2021eko otsailaren 3a, asteazkena

Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 15a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA DOLORES DE JUAN DE MIGUEL.